

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOAK BISITARIEN IGOERA NABARMENAREKIN BUKATZEN DU 2011a

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioak 2011a urteari agur esaten dio, **%7,4 bisitarien kopuruko igoera** batekin (2010 urtearekin konparatuta), **2011an zehar 29.000 bisitari** baino gehiago izan zituelarik.


Igoera berri honek ongi adierazten du – 1998an zabaldu zen erdi mailako Gernikako Bakearen Museo ertainak— museo honek duen garrantzia, bereziki aurten gogoratuko den Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrenean (1937-2012), Gernika-Lumon eta Urdaibain.

Euskadi eta Estatu mailan dagoen Bake Museo bakarra ongi ikusia da bisitarien aldetik, horrela adierazten dute Euskaditik etorritako 5.188 pertsonak, Estatu mailako 6.770 pertsonak, Europatik etorritako 13.994 pertsonak eta munduko beste leku batzuetatik etorritako 3051 pertsonak.

Balantze oso positiboa da Museoa 2011tik ateratzen duena, nahiz eta gizartea krisi momento batean egon, **bisitarien kopurua igo da** eta zenbait **ikerketa bidai** egin dira (**Erroma eta Washington-eko artxibo ezberdinetara**) Gernikako Bonbardeaketa eta Gerra Zibilari buruzko Dokumentazio Zentruak duen ondarea dokumentala haundituz. Honetaz gain, **Museoko zuzendaria munduko leku askotara gonbidatua izan da Museoare zerbitzu eta historiari buruzko hitzaldi ugari eskainiz**, besteak beste Santo Domingo (Dominikar Errepublika), Freemantle (Australia), Bruselas **Hezkuntza sailak ere tailer berriak garatu ditu azken urte honetan (udako koloniak...) eta teknologia mugikorren erabilera museoetan zelakoa den probatzeko proba piloto baten parte hartu du** (Interactiva Tech).

Ugariak dira, hasi berria dugun **2012 urte honetan (urte hasierako lehen egunetan mantentze lanetarako eta formaziorako itxita egon ostean)**, Gernikako Bakearen Museoak aurrera eramango dituen ekintzak, besteak beste:

- **Nazioarteko eskolarteko Bakea eta Ez Biolentziaren (Urtarrilak 30-otsailak 2) astearen ospakizuna**, tailer didaktikoe ezberdinak eskainiz baita Ojos Tristes deritzon antzerki lana ere (Save the Children-ekin batera antolatua).
- **4 eta 7 urte bitarteko neska-mutikoentzako Pispas: Koloreen mundua** deritzoten **tailer berrien** aurkezpena. Ordu beteko iraupena duten bost tailer hauek izen bera duen animazio telesailaren marrazkietan oinarrituta daude eta Diversidad Visual –en kolaborazioaz eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzako dirulaguntzari esker garatuak izan dira.
- **Aldi baterako erakusketa** berri eta interesgarriak (Save the Children-en Hegan egitea debekatua: Haurtzaroa eta gatazka armatuak etab)
- **Gernikako Bonbardaketa eta gaur eguneko historiografia-ri buruzko Nazioarteko Kongresua** (2012ko apirilean) Espaniako Gobernuako Presidentziako Ministerioaren dirulaguntzari esker.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

- **Kontzientziako lekuen Europako topaketa.** Italia, Belgika, Ipar Irlandam Noruega, Txekia eta beste herrialde askotako museoetako zuzendariak Gernikan batuko dituen (2012ko apirila). Espaniako Gobernuako Presidentziako Ministerioaren dirulaguntzari esker .
- **Kids Guernica Nazioarteko proiektua (ekaina-iraila)** Eusko Jaurlaritzako 2012 Fundazioari esker (Bakea eta Kulturaren Nazioarteko Urtearen ospakizuna dela eta) eta Gernika Gogoratuz, Gernikako Kultur Etxea eta Kids Guernica international-ekin elkarlanean.
- **Artea, Memoria eta Demokrazia Igo Nazioarteko kongresua (iraila edo urria)** Eusko Jaurlaritzako 2012 Fundazioari esker (Bakea eta Kulturaren Nazioarteko Urtearen ospakizuna dela eta) eta Gernika Gogoratuz, Gernikako Kultur Etxea eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean.
- **Nazioarteko Artea eta Bakearen VI Kongresua** (Iraila-urria) Eusko Jaurlaritzako 2012 Fundazioari esker (Bakea eta Kulturaren Nazioarteko Urtearen ospakizuna dela eta) eta Gernika Gogoratuz, Gernikako Kultur Etxearekin elkarlanean.
- Museoetan **Teknologia mugikorren erabilerarako proiektu berriak.**
- **Egun berezietako ospakizunetan** (Nazioarteko eskolarteko Bakea eta ezbiolentziaren astea, Gernikako bonbardaketaren urteurrena, Museoen eguna, Nazioarteko Bakearen eguna, Giza Eskubideen eguna...) ekintza ugari antolatuz.
- **Atzerriko artxiboetako ikerketarekin** jarraitu.
- **Estatu mailako eta Nazioarteko museoetako sare ezberdinetan museoak duen partehartze aktiboaren jarraipena** (INMP International Network of Museums for Peace, Internacional Coalition of Sites of Conscience, ICOM, IC-MEMO, Foro de Asociaciones de Educación en derechos Humanos y por la Paz, AIPAZ...).
- **Sare sozialetan partehartze aktiboa** (Facebook, Twitter, YouTube, Blog...)

2011 urtearekin dagoen aldaketa bakarra zera da, 2012an zehar museoak beti ordutegi berdina izango duela, hots, asteartetik larunbatetara 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 19.00etara eta igandeetan 10.00etatik 14.00etara. Hamar urte baino gehiagotan sarreraren prezioa igo ez bada ere, aurten zeozertxo igoko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

Foru Plaza 1, 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia) EUSKADI

Tel 94-6270213 eta 636378632 www.bakearenmuseoa.org; museoa@gernika-lumo.net